

BITORIAKO URIA



Araba lauan, bizi zarean urlanta,
Araka-n¹ leku gorenengoan naz jazarri,
¡Ay! emen baneu euskal lira bat zu ondretako,
Doñu eragin orain daiodan nik berari.

¿Nor ez zoratu gañ onetatik zuri begira,
Odei bat бага gaur legez goya dagonean,
Kanpo guztia galaz jantzirik dakusdan legez,
Urte danetan aurkitzen dala Bagillean?²

¡Ze ikusteko arrigarria zarean bada!
Zure sorua aberasturik dot ikusten,
Gariak dagoz alez betetan mardo ta zarden,
Goseaz gaizki uri maitea ill etzaiten.

¡Ze zelai zabal landuz zagozan inguratua!
Ainbeste erricho eleisa eta torredunez,
Dirudizula ollo ama bat erdi erdian,
Korro egiña chitacho polit edo umez.

Erregiña bat begitanduten niri zachataz,
Albo erriok erezten jataz menpekoak,
Agaitik dozuz zeatz gozetan bertan sortuten,
Direan eiza, esne, arrautza ta arraiñoak.

(1) Araka, el punto más elevado que atraviesa la carretera de Vitoria á Villarreal.

(2) Bagilla, Junio.

Zure kristalen islak¹ izarrak dabez irudi,
Zure echeok edurra legez dira zuri,
Eta Ebroruntz Gamarran zear doian Zadorrak,
Izarrentzako ispillu dala gaur dirudi.

Zure torreok ikusten dodaz zelan dabezan,
Euren buruak odehyetara eregiten,
Danen artetik Santa Maria baña, nik dakust,
Goren dalako zerutik urren aurkituten.

Arratsaldeko seirak jo ditu an erlojuak,
Gorbeya alderuntz urreratzen da Eguzkia,
Gebaran dago gaztelu zarra ari begira,
Eta nik barriz Bitoriaruntz dot begia.

¡O! Bitoria zeñbat direan zure umantak!
¡Ay! albaneizuz zearo kantau gaur gloriak!
¡Ay! albaneizuz gaur iragarri anditasunak!
Dituzulako ugari eta zurgarriak!

Baña, ezin nai kontu orise ezelan egiñ,
Dituzulako aiñ asko eta aiñ ugari,
Gura dabenak billatuko dauz istorietan,
Dozuzalako anche egiten danak jarri.

Deituko deutsut nik alanbere, seme askoren
Abia ederra; Euskal-erria ondretako,
Balio izan deuskuelako berbaz, lumaz ta
Armaz, asaben eskubideak gordetako.

Arteetan bere, ez dira azken zure semeak,
Industrietan aurrera doaz aspaldian,
Eleis-gizonak Araban dira gañgañekoak,
Sermolariak lenengokoak Bitorian.

Nik bere zuri zor deutsut dodan ofizioa,
Ikasi neutsun biziteko laiñ irabazten,

(1) Isla=reflejo.

¡O! zenbat esker zor deutsudazan gañera, santu-
Irudi asko deustazulako eragiten.

Artu egizu ordaingarritzat gaurko kantu au,
Naiz bertsolari motzak au izan ipiñia,
Obeago ta zoliagoak zaizala jarri,
Dagotzun añan, dagotzun mallan eregia.

Agur betiko, azkenengoa begiraldi au,
Benturaz balitz, leku eregi onetatik,
Ni illda bere biziko al zara zorionakaz,
Zerren maitatzen zaitudan beti biotzetik.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

